

PEDRO ETA BERE MORROYA.

Lengo egun batean
Pedrok morroyari,
bere izenez deitu
ta esan zion: i,
¿aldakik non bizi dan
sastre Jose Mari?

Ez jauna; zion esan,
bañan nai baluke,
jakiten lan aundirik
izango ez nuke,
sarri nik non bizi dan
billatuko nuke.

Ia, jakin zak bada,
jakin non bizi dan,
eta jakindakoan
atia dan dan dan,
jo, ta galdezak ia
Jose Mari an dan.

Eta ezpadago an
esan andreari,
janzi baten neurriya
artu nazan neri,
nigana bialtzeko
senar Jose Mari.

Eche billa irtenik
mutilla kalera,
topoz an egin zuben

Jose Mari bera,
eta zion egin non
bizi zan galdera.

Onek erakutsi ta
echea joanikan,
eta an enkarguba
zuzen egiñikan,
berriz nausiyagana
jira zan andikan.

Esanaz: or det topoz
egin Jose Mari,
eta echeaz galde
egiñik berari,
an diot enkarguba
utzi andriari.

Bailan tontoa ¿zertan
eztiok esan ik
artu gabe echea
billatzeko lanik,
bera bear nubela
lan baterako nik?

Eztiot esan chartzat
au artu ez dezan,
agindu ditan lana
bestirikan etzan,
echean esatea
eta an det esan.

RAMON ARTOLA.